

Jose Inazio Basterretxea

EHUKO IRAKASLEA ♦



LINGO AZKONA

Belarria, independentziarako

UR IRINEZKO OREA da hizkuntza, ogi nahiz gozoki. Hizkuntza da tresna kognitibo eta azaltzaile bat: mundua jaso eta mundua opatzeko. Horrez gain, komunitate baten ikur zein ispilu ere bada hizkuntza, hainbat aldiz zedarritutako nazioaren ezaugarri objektibo-subjektiboen ardatz dardaratian dantzan.

Lanabes askoren laguntzarekin ezaugarritu dira historian komunitateak; hizkuntza da horietako bat, duda barik. Adibidez, *francophonie* bada kontzeptu bat frantses hizkuntza darabilten bai estatuak, bai erkidegoak, eta bai hiztunak nolabait senidetzen dituen, etnien gainera eta administrazioen gainera; inoiz, kolonizazioaren erreminta izan bada ere. *Francophonie* delakoak bideratu du usu pasaporteari ihes egin izan diona, lurraldetasun kontzeptu heriotatik zelanbait aske, kultur komunitate irekia sortuta.

Hizkuntza da, hartara, *entzun daitekeen lurraldea*. Belarrian, badakigu euskara zer den, eta zer ez den. Badakigunez frantsesa zer den, eta zer ez den. Argiagok dira euskararen nota eta soinu linguistikoak, euskararen muga administratiboak baino.

De facto, belarrian, independentea –bere buruaren jabe– da hizkuntza. Hizkuntza bat entzuten den

tokian, han dago hiztunaren eta herritarraren lortza, eta haien existentzia ere. Hizkuntza non, han haren lurraldea. Pasaporte diferentek lurralde entzungarri bera izan dezakete administrazioen gainera: *euskalfonia*, gure kasuan.

Baina, garen bezalakoak gara. Autobusean sartu eta, han KissFM irratia; pelukeria, Radio Nervión; kiroldegian, RockFM; herriko tabernan, TV5; etxean, *Plus belle la vie*. Dialektan, hautua egiteko libre gara: gure esku dago erabakimena.

Berezko independentzia mota bat dakar hizkuntzak. Ez bakarria, jakina. Hizkuntza da bokaleko ibaia: dar lokabea, ibilbide propioa duena, antzeko hainbat jarioaren eta goral-diren ondoan. Hizkuntzak bere uraska, bere aberri entzungarria, sortzen du belarrian; bat etorri hori muga administratiboekin zein ez.

Bai manifestazioek, bai hauteskundeek, eta bai erreferendumez ere –gozoki onak izaki– askeago eta independenteago egingo gaituzte. Seguru.

Baina, ogia ere beharko da bidean. Euskararen konpainiak belarrian ez gaitu mendekoago egingo. Alderantziz baizik: laino guztien azpitik eta sasi guztien gainera, euskarak egiten gaitu, egin, independente, egunero. ■

*Hizkuntza non,
han haren lurraldea.
Pasaporte diferentek
lurralde entzungarri
bera izan dezakete
administrazioen
gainera: “euskalfonia”,
gure kasuan*

XDZ



Joanes
Etxebarria



KAZETARIA

Koloreak

BERRIA EZ ZAIZUE @euskalmet-en txio bat bezain laster helduko, baina euria ari du Maulen. Gure etxeko terraza bustia da, eta txoriak basamortuan balira bezala ari dira janaria bilatzen teilatu grisetan. Halere koloreak baditugu terrazan liliak ezarri genituenetik. Ez nuen pentsatu egun grisak alegeratzeko balioko zutenik, baina hala da. Gainera, koloreak ederragoak dira iluntasunean.

Goizeko zigarreta finitu eta kafe beroarekin ordenagailu aitzinean jarri naiz, egun oroz bezala. Firefox ireki eta lotura begibistakoa egin zait; koloreak agertu zaizkit

iluntasunaren erdian, oraingoan Gasteizen. Liliak zeru grisean nola, ile-faltsuen koloreek eta tixerta laranjek kontrastatzen dute ertzainen beltzarekin.

Gasteizko irudiek ez badute ere baratze-gintzarekin konparazio posiblerik, landareek, arduraz eta maitasunez zainduak direlarik, grisari gaina hartzen diote beti. Hosto bat kentzen bazaie hemen beste bat aterako da han. Hiru hosto kendu, eta gehiago aterako dira. Egunak grisetik goibelera tiratzen duenean, zein onak diren koloreak... eta kantua jin zait gogora “taupada bakoitzaz, koloreztatu zuri-beltza”. ■